

# B

BARREN

# Erleen laguna

Julian Villena

TOKIKOM





# K.E.Y. hizkuntza akademia

Trenbide kalea, 19 behea - Tel: 943 74 30 44 / 653 825 606

Ekainaren 27tik uztailaren 22ra ingeleseko ikastaroak goizez.

- Haur eta gazteentzako eskolak orokorrean.
- Laguntza eskolak: - Lehen hezkuntza  
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza  
- Batxilergoa.

**Izen ematea ekainaren 24ra arte.**

DEITU INFORMAZIO GEHIAGO ESKATZEKO.



CAMBRIDGE Unibertsitateko  
Azterketetarako Batzordeko kidea ES438



- ♦ 2011/2012 ikasturterako matrikula zabalik.
- ♦ Haurrak eta gazteak, ingelesa, frantsesa eta alemana.
- ♦ Cambridge azterketen prestakuntza:  
- Young Learners, Ket, Pet, First Certificate, Advanced

9. EDIZIOA

**IMH SARIAK** ekainak 23  
12:00etan

ekainak 6erako  
proposatu ikasle ohi aipagarria  
[www.imh.es](http://www.imh.es) webean!



ENPRESA DANOBATGROUP



MAPFRE SEGUROS

Metal Performers, sa.



ENPRESA KOLABORATZAILIAK

AGME, S.A. - ALCORTA FORGING GROUP, S.A., - DPH PROIEKTU HIDRAULIKOEN GARAPENA S.L. -  
ELKARMEDIA, S.L. - ENGRANAJES GRINDEL, S.A.L. - GORATU MÁQUINAS HERRAMIENTA, S.A. -  
IBARMIA, S.A. - ILS - INDUSTRIAS ALGA, S.A - JUARISTI, S.L. - LAIP, S.A. -  
MAZA - PIERBURG, S.A. - PIXEL SISTEMAS, S.L.

IKASLE OHI AIPAGARRIA / IKASLE AIPAGARRIA / FABRIKAZIO ARLOKO IKASLEA / ELGOIBARKO IKASLE AIPAGARRIA  
2011koak nortzuk ote? ikusi sariak webean: 800 eurotako ikasketa poltsa...



**ingeniaritza** Aurrematrikula: ekainak 17  
**imh** Ikasi eta lan.. zure txanda!

**IMH Elgoibar HEZIKETA**  
**ZIKLOAK**  
Aurrematrikula: ekainak 1-10

[www.imh.es](http://www.imh.es) – [imh@imh.es](mailto:imh@imh.es) - tel.943744132 - Elgoibar



**Zuhaitz  
Gurrutxaga**

Sei hilabetez entsegutan ibili ostean, Aitor Badiola eta Maria Armendariz laguntza ezinhobearekin lehenengo kontzertua eman genuen talde gisa orain pare bat aste. Aspaldiko ametsa

zen, Unai, etxean bakardadean sorturiko nire abestiak jende aurrean aurkeztea. Badu bere lanik kantuak sortze horrek. Ez daukat nik musika ikasketarik, beraz jakituria nahiko mugatuarekin hasi ohi naiz melodia berriak sortzen. Behin hau lortutakoan, letra egin ohi dut, normalean bizipen pertsonalen bati helduz, kasu bakoitzerako fonetika eta errima egokienak bilatuz.

40.000 lagunuen aurrean futboleko aukera izana dut noizbait, eta horrek sortu izan dizkidan nerbio, beldur eta presioak irentsi. Orain bi asteko kontzertuan, aldiz, 40 pertsona inguru bildu ziren, eta hara non, esan behar dut estadio handienetan jokatu dudanean bezainbat nerbio izan nituela.

**“Noizean behin sabelean tximeletatxoak biraka edukitzea behar dugu bizirik gaudela sentitzeko?”**

Hainbeste itxarondako saioa hasi baino hamar bat minutu lehenago, urduritasun sakonenean murgildua nintzelarik, zera pentsatu nuen: hainbeste urtez asteburuero jendaurrean jokatu beharrak sorturiko tentsio deserosoa jasan eta gero, nolatan hasi naiz orain inork agindu gabe berriro ere jendearen begi kritikoen aurrean nire lana edo balioa plazaratzen? Akaso, Unai, noizean behin sabelean tximeletatxoak biraka edukitzea behar dugu, bizi-bizirik gaudela sentitzeko?

P.D. Doako publizitatea egiteko aprobetxatuko dut, BARRENen baimenarekin. Taldeari Vanpopel jarri diogu izena.



**Unai  
Arrieta**

Ezagutzen genuen, Zuhaitz, musikarako zenuen zaletasuna. Pozten nau benetan zure lanak plazaratu eta ametsa egi bihurtu izanak. Ez duzu zuk, ez, bizitza gaztetako ametsen porrota izango.

Galdera polita jaurti didazuna, Zuhaitz. Zerk garamatza jende aurrean agertzeraz? Zerk garamatza, zuk diozun bezala, jendearen begi kritikoen aurrean gure lana eta balioa plazaratzera? Agian egia izango da presioa dela sorkuntzarako akuilurik onena.

Geure aurrerapenen barne feedback-a lorpen-mezu boteretsua izan daiteke. Zalantzarik ez daukat ordea, Zuhaitz, zeinen beharrezko ditugun geure aurrerapen eta lorpenen kanpo errekonozimendua edo onarpen soziala. Autoerrealizazio pertsonalerako beharrak agertoki, berdegune, kantxa eta taula-gainetara bultzatzen gaitu.

**“Agian egia izango da presioa dela sorkuntzarako akuilurik onena”**

Zu bezalaxe, ni ere, Zuhaitz, kirol-lehiaketak bizi izan nau txiki-txikitandik. Norgehiagokak berezkoa du ebaluazio sozial hori, inoiz ez ditut parte-hartzaile guztiak modu berean saritzen. Eta horrek berarekin halako ardura eta kezka bat dakar. Kirolarion erronka nagusietako bat presio horrekin bizitzen ikastea delakoan nago. Presioarekin bizi eta presio hori geure aldeko, geure baitako, egiten ikastea. Ongi gestio-natutako urduritasunek geure ahalmenak modurik hobereanean garatzera garamatzate, guretzat esangura berezia duten lorpen-aukera handi baten aurrekari baitira. Zuk egiten duzun bezala, Zuhaitz, presio egoeretz gozatu eta horietatik ahalik eta etekinik handiena ateratzeko, aldeko haize hori erabiltzen ikastea besterik ez dago. Bere denbora eta ezagutza eskatzen dituen lana da, ordea



ESKERTZA

## AMADEO AIZPITARTE ACHA

2011ko maiatzaren 25ean hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.

# Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi  
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,  
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA  
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio  
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN  
DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK  
Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres  
Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola,  
Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai  
Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus  
Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes  
Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa  
Lendinez, Iñigo Lariz. INPRIMATEGIA Gertu  
Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA  
SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:




ELGOIBARKO UDALA



MENDAKO UDALA



AIRE AIRE ET



## ■ GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### “Shukran”

Mendebaldeko Saharako herriak hitz hau erabiltzen du eskerrak emateko. Beraz, *shukran* hedabide honi janari-bilketaren berria zabaltzearen. *Shukran* Dia, Eroski (Bernardo Ezenarro eta Santa Ana) eta Nttori bilketarako gurdiak jartzen laga digutelako. *Shukran* elgoibartarroi zortzi gurdi janariz bete dituzuelako, eta Udalari lokala lagatzearen.

*Shukran*, baita ere bilketa kanpainarekin bat egin duten herriko ikastetxeei.

**Elgoibarko Sahararen lagunak** ◀

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: “Ikastolako irakasleak”, esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.



Sakelekoak minbizia izateko arriskua handitu dezakeela ohartarazi du OMEK.

## Sakelekoa erabiltzeko orduan neurri berezirik hartuko duzu?



**Francisco Rivero**  
51 urte, autonomoa

Eta zer egingo dut, sakelakoa basurara bota? Gaur egun ez gara inor sakelakoa soinean ez badaramagu. Nik, gainera, derrigorrez erabili behar dut, lana dela-eta. Arriskutsuak direla frogatzen bada, etxean nagoenean aparailua ahalik eta urrunen lagatzen saiatuko naiz.



**Toufik Krami**  
40 urte, muntatzailea

Ez. Egun guztia sakelakotik zintzilik pasatzen duten horietakoa baintz, beharbada, bai, baina ez da nire kasua. Hobe da sakelakoa bere neurrian erabiltzea. Eta, ahal dela, erabiltzen ez dugunean norberarengandik urrun edukitzea komeni dela uste dut, badaezpada ere.



**Juan Carlos Almazan**  
49 urte, aseguru-tako langilea

Oraindik ez dituzte ikerketa horiek egiaztatu eta ez dute argitu sakelakoa zenbateraino izan daitekeen arriskutsua. Alegia, arrisku bera al duen egunean hamar minutuz ala bi orduz berba egiteak. Dena dela, gutxi erabiltzen dut sakelakoa eta ez nago kezkatuegi, oraingoz.



**Fernando Sosa**  
36 urte, kamareroa


Sakelakoa beharrezkoa da, baina gai honek asko kezkatzen nau. Izan ere, Antena errepikagailu baten ondorioz minbizia bizkortu zitzaion kasu bat gertutik ezagutzeko aukera izan dut familian, nire amarena. Hala ondorioztatu zuten ikerketak egin zituzten adituek.

## ■ SEMAFOROA



**Bernardo Ezenarro kaletik San Roke auzora igotzeko jarri duten igogailuarekin ez dute asmatu:** “Ideia ona dela ematen duen arren, nire ustez Udalak ez du asmatu igogagailu horrekin. Erosoa da, eta jende askok erabiltzen du, eta adinekoentzat, bereziki, abantaila handia eskaintzen du. Baina hondatzen denean lehengo ibilbide berbera egin behar dugu herritarrok, eta tamalez, sarritan hondatzen da. Zergatik ez dute igogailuaren ondoan eskailerarik ipini? Horrela behintzat, oinez igotzeko aukera egongo litzateke, buelta guztia eman gabe”.

**San Pedro kalearen amaiera aldeak zabortege itxura hartu du:** “San Pedro kale amaiera, trenbideko tunel zaharra dagoen ingurua, zabortege itxura hartzen ari da. Farola zaharrak, neumatikoak, baranda horiak... denetarik uzten dute han. Itxura zikina eta zatarra hartu du zonalde horrek, eta han bizi garenok ez dut uste hori merezi dugunik. Urruti dago lekua, bai, herrigunetik aparte, baina horrek ez du esan nahi egoera horretan eduki behar denik. Eskertuko genuke ingurune hori txukuntzea. Eskerrik asko.”




Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:  
[barren@elgibarkoizarra.com](mailto:barren@elgibarkoizarra.com) 943 744 112

## Baserritarrak eta kontsumitzaileak gerturatzeko proiektu pilotoa jarriko du martxan TaZEBAez enpresak

Martitzenean bilera informatiboa egingo dute Kultur Etxean, 19:30ean

**B**aserritarrak eta kontsumitzaileak gerturatzeko asmoz, TaZEBAez enpresak Landatzen izeneko proiektu pilotoa jarriko du martxan Elgoibarren, Debemen eta Deba Garaia elkarrekin laguntzaz. Baserriko produktuak zuzenean kontsumitzaileari saltzea da egitasmoaren helburua, era horretan, bitartekarien kostua aurrezteko. Hala, baserriko produktuak prezio hobean eskuratzeko aukera emango zaio kontsumitzaileari, eta baserritarren egoera ere hobetu egingo dela uste dute enpresako kideek.

Era berean, lanetik berandu irteten den jendeari baserriko produktuak eskuratzeko erraztasunak emango dizkiete proba pilotu honekin. Kontsumitzaile bakoitzak bere eskaera egingo du, telefonoz edo e-postaz, eta merkatu plazan jarriko diren takiletan jaso ahal izango dute erosketa, norberari ondo datorkionean. Eskera horretan bakoitzak nahi duena eskatuiko du. Hau da, bakoitzak bere neurriko erosketa egin dezake, eta berak gustuko dituen produktuekin. Takilen prototipoa Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntzarekin garatu dute, eta hotz mantetzeko sistema ere bermatu dute, produktuak egoera onean kontserbatu daitezzen.



*Iskander Alkate, Jon Abaitua eta Joanes Rodriguez TaZebaEz enpresako kideak.*

Landatzen proiektuaren barruan bost lan lerro zehaztu dituzte, baina hasiera batean ez dituzte guztiak abiatuko, eta baserritarrak kontsumitzaileen gerturatzeko lanarekin hasiko dira. Proba pilotu honekin herritarren interesa neurtuko dute, eta kontsumitzaileen erantzunaren arabera, proiektua garatzen joango dira.

### Bilera

Herritarrek duten interesa ezagutzeko eta proiektuaren berri emateko

bilera egingo dute martitzenean, ekainaren 7an, Kultur Etxean, 19:30ean.

### TaZEBAez

TaZEBAez enpresa Mondragon unibertsitatearen barruan eratu da, Lidergoa Ekintzailea eta Berrikuntza ikasketen baitan. Hamahiru lagunek osatzen dute, eta tartean Joanes Rodriguez elgoibartarra dago. Irabazi asmorik gabeko enpresa da, eta helburu bakarra ideia berritzaileak eta egingarriak martxan jartzea da.

## Elgoibarko bi enpresa saritu zituzten Ekintzailetasunaren egunean



Maiatzaren 26an Ekintzailearen Eguna izan zen, eta horren harira, Debarrena Ekinean sariak banatu zituzten Debegeak. Sarituen artean Elgoibarko bi enpresa zeuden: Ekar soldadura enpresak Plus Ekimena saria jaso zuen, eta Bronymec enpresari Bai industriari! errekonozimendua eman zioten. Ekitaldian, bestalde, enpresa berriek euren produktu eta zerbitzuen aurkezpena egin zuten. Bertaratuakoen artean Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkatea, Josebe Astigarraga Mutrikuko alkatea eta Mari Jose Telleria Eibarko Kultura zinegotzia izan ziren. Horiekin batera, Juan Angel Balbas Debegeak Zuzendari Nagusia eta Berrikuntza eta Enpresa Saileko teknikariak ere parte hartu zuen.



## Ekintza **Moto kontzentrazioa**



Azken urteotako ohiturari jarraituz, Skull Riders taldekoek motoen kontzentrazioa antolatu dute domekarako. Goizeko 9:00etan batuko dira motozale guztiak Madalako parkean, eta hamarretakoa egingo dute. Ondoren, 11:30ak aldera herrian zehar egingo dute moto itzulia, eta errepidera irtengo dira. Gero, ordubeteko irteera egingo dute, eta 14:30erako itzuliko dira berriro Madalara. Han, 300 lagunentzako paella prestatuko dute, eta bertan bazkalduko dute. Interesatuak ondorengo telefonoan eman dezakete izena: 639 524 850.

## Irudia **Garagardo feria**

Trinitateetako Nagusien Danborradako kideek garagardo feriaren balorazio positiboa egin dute, eta herritarren erantzunarekin "oso pozik" daudela adierazi dute. Oraindik balorazio ekonomikoa egin ez badute ere, Juan Carlos Arrietaren arabera iaz baino jende gutxiago ibili da aurten. Hilabete amaiera tokatu izanak, eta domekako eguraldi onak eta Ondarroan Ibilaldia tokatu izanak eragina izan duela uste du. Egunik arrakastasuenak barixakua eta zapatua izan zirela adierazi du, eta bereziki, egun guztietan zehar nagusitu zen "giro ona" nabarmendu du Arrietak: "Mota guztietako jendea ibili da, adin guztietakoa eta denek gozatu dute". Ez dela inolako haserrerik egon gaineratu du, eta Kirkil Djak jende guztia dantzan jarri zuela azaldu du.

Hala, eskerrak eman dizkie garagardoaren ferian parte hartu duten guztiei, bai festaz goaztera joan direnei, eta baita lanean jardun dutenei ere.



Arg.: Aitor

## **HARRO2 taldearen urteurrenako jaia, gaur**

HARRO2 gazte taldeak orain arte izan duen bilakaeraz hausnarketa egingo du, taldearen sorreratik urtebete pasa denean, eta horretarako festa txiki bat egingo dute gaur iluntzean. Plaza Handian batuko dira 19:30ean, eta txaranga poteoa egingo dute. Kalean behera abiatuko dira eta Gaztetxera ailegatzen direnean hasiko da bilera, 20:00ak inguruan. Ondoren, mokadutxo egingo dute. Herriko gazte guztiak gonbidatu dituzte taldean parte hartzera.

## **Organo emaileen mahai informatiboak bihar**

Ekaineko lehenengo asteazkena organo emaileen nazioarteko eguna da, eta horren harira informazio mahaiak jarriko dituzte bihar, Plaza handian. Nahi duenak emaile egiteko aukera izango du.

## **Milagrorra irteera**

Jubilatuen Egoitzak Milagrora irteera antolatu du ekainaren 23rako. Bazkideek 33 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 38 euro. Interesatuak Jubilatuen Egoitzan eman dezakete izena.

## **Ikastolaren Eguna ospatuko dute bihar**

Ikastolaren Eguna antolatu du Elgoibar Ikastolak biharko. Goizean goizetik hasiko dira ekintzak. Umentzako jolasak, bertso saioa, bazkaria eta dantzaldia antolatu dituzte, besteak beste. Horrez gain, Ikastolaren 50. urteurrenako logotipo lehiaketako irabazlea ere auke-ratuko dute.

## **Altzola ezagutzeko irteera egingo dute domekan**

Zubibai elkarteak Altzola inguruak ezagutzeko irteera antolatu du domekarako. 9:30ean batuko dira iturrian, eta Belortzaki aldera abiatuko dira. Itzuliaren ostean mokadutxo egingo dute.

## Erretratu zaharra



1969

Aste honetako erretratu zaharra Gloria Canalesek ekarri du BARRENEKO erredakziora. 1969an Donostiako La Perlan ateratako erretratua da, eta argazkian azaltzen direnak Gipuzkoako Ostalarien elkarteko kideak dira. Urtero egiten zuten bazkaria Donostian, eta Elgoibarko ostalariak ere joaten ziren. Gogora ditzagun zeintzuk diren erretratuan azaltzen direnak:

**Mahaiaren ezkerreko aldean:** Santi Urain (Txarriduna jatetxekoa) (†), Maria Angeles Iriondo, Itziar Konde, Faustina Zubiaurre eta Iñaki Konde (†) (Gorbea jatetxekoak).

**Mahaiaren eskumako aldean:** Ines Mendikute (Txarriduna jatetxekoa), Juani Barrutia (†) eta Ramon Canales (†) (Barrutia jatetxekoak), Ana Mari Gorostiza (Gorostiza tabernakoa) eta ezezaguna.



ESKERTZA

## BEGOÑA MUGURUZA CENDOYA

*“Agarretxiki”*

2011ko maiatzaren 28an hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

## ROMAN BERNEDO GALDOS

2011ko maiatzaren 23an hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





## Uztaileko ikastaro trinkoak

ALEMANA, FRANTSESA, INGELESA ETA ITALIERA

# ILS

## Industry Language Services

inglés

francés

alemán

Haundi

italiano

chino

Ordutegia goizez  
eta arratsaldez

Informazioa, matrikula eta ordutegiak:

Ikastaroaren ordu  
kopurua: 48

[www.ils.es](http://www.ils.es)

943 744 040

Ekainaren 27tik  
Uztailaren 29ra

Maila guztiak

Orokorra eta  
komertziala

Talde murriztuak



INDUSTRY  
LANGUAGE  
SERVICES



Azhar Azco L (IMH)  
20670 ELGOIBAR

# LAGUNAK KOLTXOI DENDA- TEXTIL HOGAR

Estore, gortina eta japoniar panelak egiten ditugu neurrira.

**ESKA EZAZU  
ZURE  
AURREKONTUA  
KONPROMISORIK  
GABE**



San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



DecoracionPlus

OLDSAN

terxy

Oihana  
Ohe perlatuak


KEYTON®  
Masajedun besakoiak



txatxaran

# Alberto Hijano

**Eduardo Chillida Euskadiko 9. Olinpiada Matematikoan lehen postua lortu du Alberto Hijano Mendizabalek, Elgoibar Ikastolako DBH 2. mailako ikasleak. 13 urte besterik ez dituen arren, oso argi du matematikarekin edo fisikarekin zerikusia duen zerbaitetan lan egin nahi duela nagusitzean. Bere erantzunak ere matematikoak dira; moztzak eta zehatzak.**



**“Matematikak ulertu eta egiten saiatuz gero, gozagarriak dira”**

**Txapeldun Olinpikoa zara matematiketan. Zer sentitu zenuen sari-zintuztela jakin zenuenean?**

Hasieran ezin nuen sinistu, baina irabazi nuela ziurtatu zidatenean poz handia sentitu nuen.

**Zenbat froga egin behar izan dituzu lehen saria eskuratzeko? No-lakoak?**

Lehen froga ikastetxean bertan egin genuen. Hura gainditu eta azken faseko sailkatu nintzen. Araba, Bizkai eta Gipuzkoako hiriburuetan jokatu zen azken fasea, egun eta ordu berean. Donostian egin nuen nik, beste 50 ikasle ingururekin batera. Bi ordu eman zizkiguten logika, aritmetika eta geometriako lau arazo matematiko ebazteko. Ondo egin izanaz seguru irten nintzen. Aste bat beranduago eman zizkiguten emaitzak. Ingalaterran hilabeteko egonaldia egiteko aukera jaso dut sarizat. Matematikak gustuko dituzten pertsonen arteko bizikidetzat moduko batean parte hartze-ko aukera ere eskaini digute. Vigon (Galizia) izango da kurtsu bukaeran.

**Askori matematikak eta zientziak arrotzak egiten zaizkigu. Beste askorentzat ulergaitzak eta aspergarriak dira. Zer dira zuretzat matematikak?**

Oso interesgarriak dira niretzat matematikak. Gero eta gehiago jakin, gehiago ikasteko gogoia ematen didate. Horretarako, baina, gustua hartu behar zaie. Horretan ez dut arazorik eduki, hasieratik iruditu zaizkit-eta interesgarriak.

**Zer esango zenieke matematikak aspergarriak direla diotenei?** Matematikak ez daukate fama onik, baina defendatu egingo ditut. Ez dira aspergarriak, inolaz ere. Matematikak ulertu eta egiten

saiatuz gero, gozagarriak dira. Aurkako jarrerarekin, baina, ezin li-teke matematikez gozatu. Norberaren jarrera oso garrantzitsua da. Matematikak ulertzeko arazoak ondo eta astiro irakurtzea da garrantzitsuena. Datu guztiak bildu eta eragiketak egin behar dira gero. Emaitza zuzenik lortzen ez badugu, laguntza eskatu behar da, eta ulertu arte berriz saiatu.

**Matematiketako zein arlo duzu gustukoena?** Hiru dimentsiotako geometria arazoak. Gorputzen bista ezberdina imajinatzea asko gustatzen zait. Hala ere, dena gustatzen zait matematiketan.

**Zure aitak matematika klase partikularrak ematen ditu. Geneetan dituzu matematikak?**

Beharbada bai (irriparez).

**Zurekin ikasleekin baino zorrotzagoa dela uste duzu?** Ez dakit nolako den bere ikasleekin. Nirekin oso ondo portatzen da. Laguntza handia da niretzat.

**Zer diote zure ikaskideek matematiketan duzun abileziaz. Inbidia punturik badute ala ez zaie axola?**

Ez zaiela interesatzen egiten dute, baina batzuek inbidia dute.

**Zer izan nahi duzu handitan?** Matematikarekin eta fisikarekin zerikusia duen zerbaitekin lan egin nahi nuke. Ikerketak egitea gustatuko litzaidake.

**Erabiltzen dituzu ordenagailua eta Internet? Baliagarriak dira matematiketarako?**

Programa batzuetan badaude gorputzak hiru dimentsioetan egiteko aukerak eta horrelakoak. Baliagarriak izan daitezke ikasteko, baina nik ez ditut erabiltzen. Dena eskuz egiten dut.



# JULIAN VILLENNA

ERLEZAINA

“Erleengandik dena aprobeztatzen dugu”



**Erlezaintza bizi du Julian Villena elgoibartarrak. Erleez ari dela begiak argitzen zaizkio, eta intsektu txikiok gorroto dituenari ere interesa pizteko gai da. Orain bost bat urte hasi zen Villena erleekin lanean, eta egunetik egunera harrapatuago sentitzen dela aitortu du. Erleen antolatzeke moduak liluratuta dauka, eta mimo handiz zaintzen ditu, harik eta etekin handiena atera asmoz.**

**Noiz eta zerk bultzatuta hasi zinen erlezaintzan?**

Orain bost bat urte, erlezain bati entzunda. Oso kuriozosa iruditu zitzaidan irratan hari entzundakoa, eta ezti zalea ere banintzeenez, geure kontu hastea pentsatu genuen. Nire neska lagunaren osaba batek erleak zituen garai hartan, eta hari oinarrizko pare bat kontu galdetuta hasi ginen biok poliki-poliki mundu honetara gerturaten. Liburutegitik erlezaintzari buruzko liburu mardul bat hartu nuen gero, eta ikaragarria iruditu zitzaidan erleen mundua. Udaberri hasiera zen, eta, liluratuta, erlezaintzari buruzko oinarrizko ikastaro batean izena eman nuen. Halaxe, erlezain bati bi erlekume [erle talde] txiki erosi, eta lanean hasi

ginen, ezerezetik. Familia osoa osatu nuen urte hartan, eta negua pasatu zutenei ezti eta polena hartzen hasi nintzen. Azken finean, erlezainok lapur hutsak gara.

**Ikaragarria iruditu zitzaizula diozu. Zer egin zitzaizun deigarriena?**

Bereziki erleek erlauntza barruan antolatzeke duten modua: erreginaren inguruko kontu guztiak, erle langileen eta erlemandoen arteko harremana... [Erle eme emankorrari esaten zaio erregina, arrautzak erruten dituenari. Erle langileak, berri, erle eme antzuak dira, polena bildu eta ezti eta argizaria egiten dutenak, eta erlemandoak erle nagiak dira, erregina ernaldutako beste helbururik ez duten erle arrak].

**Erlezainok lapur hutsak zaretela esan duzu. Sobera zutena kentzen zenietela uste genuen guk.**

Hala gara, lapurrak. Ahalik eta ezti kopuru handiena sortzeko gobernatzeko ditugu guk erleak, gero sobera duten hori geuk hartzeko. Hala, kaxak gehitzen joaten gara, erleei ezti eta polena gordetzeko lekua emanez, baina, berez, erleek ekoizten duten ezti guztia eurentzako sortzen dute, euren burua elikatzeke eta negua pasa ahal izateke. Erlauntza batek 20-30 kilo ezti sortzen ditu, eta erleek eurek negua pasatzeko nahikoa dute zortzi-hamar kilorekin. Lapurrak diodanean hortaz ari naiz. Urte guztian egindako lanaren zati bat kentzen diegulako guk.



### Nola sortzen dute eztiak?

Erleek mihiarekin nektarra xurgatzen dute loreetatik, eta ahotik ahora pasatzean nektar hori hezetasun handiko ezti bihurtzen dute. Erlauntza barruko berotasunarekin, baina, hezetasun hori galduaz joango da eztiak, eta behin hezetasun gradu egokia lortzen duenean, erleek argizariz estaltzen dute, eta halaxe mantentzen dute eztiak abaraskan. Hori ere da gero guk poteetan sartuko dugun eztiak, argizariz estalitakoa. Argizariz estali gabekoa hartuz gero, eztiak hartitu egiten dira. Beste horrekin ezti ura egiten da, eztiarekin egindako ardoa.

**“Erleak desagertzen badira, gizakiak ez du lau urte iraungo”.** Hala ohartarazi ei zuen Einsteinek berak. Horren garrantzitsuak dira erleak?

Ez dakit ez ote den asko izango hori esatea, baina bai, erleak oso garrantzitsuak dira, batez ere polinizaziorako. Hala ere, polinizazioan beste intsektu batzuk eta haizeak berak ere parte hartzen dute, beraz ez dakit. Gainera, erleek ez dituzte lora guztiak polinizatzen, nektar hori lorean sakonegi badago ez direlako mihiarekin horraino iristen.

**Gainerako intsektuen ondoan zerk egiten dituzte horren berezi erleak?**

Taldeka funtzionatzen dute erleak. Erlauntza batean, uda sasoiaren, 80.000 erle inguru egon daitezke, baina elkar hartuta bizi dira. Lehenengo erlea akazi lorera joaten bada, nektarra hartu eta erlauntzera bueltatzen duenean, lore hori non topatu duen esango die gainerako erle langileei. Hala, denak harantz abiatuko dira. Horretan bereziak dira, gainerako intsektu guztiak banaka ibiltzen direlako. Polinizazioa familia bereko loreen artean egiten da beti. Sagarrondoak, madariondoak, gezozondoak... polinizatzeko asko erabiltzen dira, esaterako, erleak. Naturan, berriz, sasia-

ren, gaztainondoaren, eta akaziaren loraldiak oso potenteak izaten dira.

**Loraldiak bereizten dituzte ezti klaseak? Zein motatako eztiak egiten duzue zuek?**

Guk mila loreko eztiak egiten dugu. Eta bai, loreen arabera izaten da eztiak. Akaziaren lorearekin oso ezti argiak egiten dira, adibidez. Gaztainondoarekin, berriz, ilunagoak. Lore bakarrekoa eta mila loretako eztiak daude. Lore bakarrekoa loraldi jakin batean ateratako eztiak esaten zaio, eta mila loretakoak, berriz, garai bukaeran, iraila aldera, ateratako eztiak. Maiatzetik irailera arteko loraldi guztietan pilatutako eztiak izaten dira mila loretakoak. Guk, estreinakoz, aurten aterako dugun lore bakarrekoa eztiak, akaziarena ateratzeko moduan dugulako dagoeneko.

## “Erleak hain dira metodikoak badirudiela dena egiten dutela ondo”

**Zegaman lehenengo saria eskuratu zenuen ezti argien saillean. Bide nekeza izan al da horraino iristea? Nola jaso duzue saria?**

Saria jasotzea beti da polita. Erlezainen elkarrekin zuzpi zonalde ezberdinetan antolatzen dituzte txapelketak urte osoan zehar, eta txapelketa horietan sarituak izan diren lehenengo hirurak Zegaman egiten den Gipuzkoako txapelketarako sailkatzen dira gero. Debako Soro ferian irabazita lortu genuen guk Zegamarako txartela. Han, Zegaman, 21 irabazleekin artean, beste hautaketa bat egiten dute gero, hiru modalitate ezberdinetan: ezti iluna, argia eta mila lorea. Gurea berez mila loretako eztiak zen, baina argietan sailkatu gintuzten.

**Eta erleek eurek eragiten al dute ezti motan? Zer nolako erleak dituzte zuek?**

Erle mota ezberdinak badaude egon, baina erleek ez dute eragiten ezti motan, loreek baizik. Gureak hemengo erleak dira, erle beltzak. Erle mota asko daude: italiarra, kaukasiarra... eta bakoitzak bere alde onak eta txarrak ditu. Badira eztiarako onak direnak, baina gero neguan elkarri jatekoa lapurtzen ibiltzen direnak ere. Erle beltza oso gogorra da.

Ondo pasatzen du negua, eta oso gaixotasun gutxi harrapatzen ditu.

**Asiako liztorrak estu hartzen ei dituzte, hala ere. Zure erlauntzetan ikusi duzue halakorik? Zeintzuk dira gaur egun erleen kontrako mehatxu handienak?**

Lasartera ere iritsi ei dira, bai, baina nik ez dut bat ikusi oraindik. Barroa izan da orain arte erlearen etsaierik handiena. Zomorrotxi bat da barroa, erlearen bizkar bizi den zomorrotxi. Asiako erleek ekarri zuten hona, eta ikaragarri zabaldu zen. Asian oso ondo moldatzen da hango erleekin, baina hemen, ondo tratatu ezean, erlauntza kolapsatu eta hil dezake barroak. Bestalde, intsektizidek ere kalte egiten diete erleei.

**Legez zer baldintza bete behar dituzte erleekin lanean hasi nahi duenak?**

Gipuzkoan ez dago oso araututa. Palentzian, esate baterako, erleak jarri nahi badituzu, lehendabizi erlategi hori altan eman behar duzu tokian tokiko Udalean eta Diputazioan. Hemen, baina, edozeinek dauka erleak. Baldintza bat jartzen dute: erlategia duzun lekua markatuta izan behar duzula eta erlauntza bera ere bai, jakiteko norena den. Aseguratu ere egin ditzakezu, baina hori ez da derrigorrezkoa.

**Zer pauso eman behar dituzte erleekin hasi nahi duenak?**

Erlezain Elkartearen bitartez egin dezakezu dena. Erlezain batekin harremanetan jarriko dizute han, eta bazkide eginez gero, behar duzun material guztia ere eskuratu ahal izango duzu.

**Erle erreginak dauka pagotxa. Zerk egiten dituzte horren berezi?**

Erle erreginak bost bat urteko biziraupena du







berez. Udako erle langileek, berriz, 40 bat egun hartzen dituzte, udan sekulako desgastea izaten dutelako. Negukoek, berriz, lau-sei hilabete egin ditzakete bizirik, apenas irteten direlako erlauntzetik. Baina bada gehiago ere. Neguan horrenbeste iraute horren atzean badago biziraute nahi bat ere.

#### **Zer esan nahi duzu?**

Berez, erleak egunero joaten dira berritzen, erreginak egunero jartzen dituelako arrautzak. Neguan, baina, hotz handia egiten duen lekuetan, erreginak ez du arrautzarik jartzen, eta beraz, erle langile horiek hilko balira, erle talde horrek ezingo luke luze iraun. Natura oso argia da.

#### **Gizakia omen da gero animaliarik argiena...**

Erleak oso argiak dira. Beharbada ez dute ekimen handirik, baina hain dira metodikoak, badirudiela dena egiten dutela ondo.

#### **Urtea nola planifikatzen duzu?**

Liburuek esaten dute erlezaintzako urtea udazkenean hasten dela. Negurako preparamen ditugu guk erleak. Erle hori udaberrian eta udaldian behar beste garatu ez bada, eta ondorioz, jan nahikoa pilatu ez badu, edota erlezainak behar baino jan gehiago kendu badio, udazkenean geuk elikatu beharko ditugu, azukre-urarekin. Horretarako, lehenengo, erlauntza bera pisatuko dugu, pilatu duten ezti kopuruaren estimazio bat egiteko. Udazken hasieran egingo genuke hori. Sarrerak ere txikituko ditugu, neguan sagurik sartu ez dadin epeletara. Era berean, erlauntza inklinatuko dugu, kondentsazioak saihesteko [erlauntza barruan 25 gradutara mantentzen da neguan] eta erlauntzera urik sartu ez dadin. Neguaren amaiera-udaberri hasiera oso arriskutsua izaten da, eguraldia epeltzearekin batera lanean hasten direlako, baina sasoi horretan gerta daitekeelako kolpera eguraldia hoztea, eta erleak hiltzea.

#### **Zer egin behar da hori saihesteko?**

Sasoi hori erlauntza zabaldu eta zer egoeretan dagoen ikusteko baliatuko dugu. Udaberria hastearekin batera, kontu handiz ibili behar da erleak erlekumea bota ez dezan. [Er-

launtzean erle asko pilatzen direnean gertatzen da hori. Halakotan, jatorrizko erlauntza bitan zatitzen da, eta erdiek alde egiten dute, erregina zaharra hartuta. Oso ohikoa izaten da erlekume horrek, erlauntzetik bereizitako taldeak alegia, pertsiana kaxetan eta fatxadetan etxe berria erakitzea]. Oso kontuan ibili behar da horrekin, erregina gazteak denbora beharko duelako arrautzak erruten has-teko, eta arriskua dagoelako erleak lanean hasterako loraldi asko galtzeko, eta ondorioz, ezirik ez jasotzeko. Udaberrian aurrera egin ahala, lekua egiten joango gataizkie, ezti pilatuz joan daitezten, eta ezti batu, berriz, loraldi bakoitzaren ostean edo bestela iraila aldera.

#### **Eztiaz gain beste zerba itz aprobetxatzen duzue zuek?**

Erleengandik dena aprobetxatzen dugu: ez-tia, polena [kumea elikatzeko erabiltzen dute erleek], argizaria, propoleoa, jalea reala [erle langileek erregina elikatzeko sortzen duten substantzia]... Polenak proteina asko ditu, eta naturan dauden bitamina gehienak ditu gainera. Pozoia eta erlemendoen arrak ere batzen dituzte zenbaitzuek.

## **“Erlauntza batek 20-30 kilo ezti sortzen ditu”**

#### **Mila tratamendutan erabiltzen dira erleak, baina arriskutsua ere gerta daiteke. Egia da ziztada bat nahikoa dela alergija duen pertsona hiltzeko?**

Bai. Horregatik, apiterapia egiten denean, lehenengo mikro-eztenkada batekin alergiaren proba egiten zaio pertsona horri. Ziztada batek hil dezake, bai, baina gerta daiteke bigarren erle batek ziztatu arte pertsona hori ez konturatzea alergija duenik. Gure gorputzak lehenengo ziztada jasan dezake, baina bigarrenengo erreazio gogor bat gertatzen da, eta azkar tratatu ezean, hil egin daiteke bat, arnasbideak ixten direlako, besteak beste.

#### **Estutasunik pasatu duzu noizbait?**

Hasieran, bai. Lehenengo ikastaroa egin

nuenean, eta erlauntza zabaldu zutenean, ikaratu egin nintzen. Erlezainak kea botatzen du erlauntza zabaldu aurretik, erleak kea sumatzean alde egiteko prestatuta daudelako genetikoki. Ihes egin nahi horretan, ezti jan eta jan hasten dira, ihes egin aurretik erreserbak hartzeko. Horretara egoten dira, eta paparoa [esofagoaren zabalgunea] beteta dutenean, eztenkadak emateko zailtasun gehiago izaten dituzte. Izan ere, ezti beteta daudenean luzatu egiten dira erleak, eta ezin dute horrenbesteko indarririk egin. Era berean, eguraldiak ere asko eragiten die. Eguraldi epelarekin askoz lasaiago ibiltzen dira.

#### **Etixerako edo saltzeko jasotzen duzu zuk ez-tia?**

Etixerako eta lagunentzako, baina bai, sobe-ra badugu saldu ere egiten dugu. Etixerako adina bilduz gero, gustura egoten naiz, hala ere.

#### **Zenbat denbora kentzen dizu afizio honek?**

laz, hamabostean behin joaten nintzen, baina oso ezti gutxi atera nuen. Aurten, berriz, astero joaten naiz, eta horrela gutxienez .

#### **Zenbat ezti batzen duzu?**

Gipuzkoan bataz beste hamar-hamabost kilo jasotzen dira erlauntzeko. Behin, baina, Palentziako erlezain bati lagundu nion, eta bi erlauntzetik 90 kilo batu zituen hark. Gaur egun, hamar erle [erle-talde] ditugu ezti egiten, eta bat jalea reala ekoizten.

#### **Sariak beste pauso bat ematera animatuko zintuen, ezta?**

Bai, bai. laz, estreinakoz aurkeztu ginen Deban, eta bigarren saria lortu genuen. Sari hark segitzera animatu gintuen, bai. Aurten, berdin. Lore bakarreko ezti beti egin nahi izan dut, eta hori adibidez aurten aterako dugu estreinakoz. Natura zalea eta animalia zalea naiz ni, eta erleekin ibiltze honek asko betetzen nau, naturarekin harreman zuzenean mantentzen naudelako.

**Ainhoa Andonegi**





# **TXIKI EGUNEKO BAZKARIA**

**Bazatoz bazkaltzera,  
txaranga amaitu ondoren?**

**17:00etan, Sigmako aparkalekuan.**

**Animatu, primeran pasako dugu-eta!**

Informazio gehiago:

943 74 16 26 / [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com)



**ELGOIBARKO IZARRA**  
KULTUR ELKARTEA



# Manolo Ramos izan da gure ordezkarien artean onena Aizkorriko maratoian

450 lagunek hartu zuten parte guztira

Sei elgoibartar eta bi mendaroar lehiatu ziren domekan Zegama-Aizkorri mendi maratoian, eta horien artean, Manolo Ramos elgoibartarrak egin zuen denborarik onena. Emakumeen artean, bestalde, Maite Maiora mendaroarrak sailkapen nagusiko zortzigarren postua eskuratu zuen. Gure ordezkarien artean, zortzitik zazpik amaitu zuten proba, Gotzon Zulaika mendaroarra erretiratu egin zen-eta. Guztira, 450 lagunek hartu zuten parte, tartean 34 emakumezkoak. Parte hartzaileek 42,195 kilometroko ibilbide teknikoa eta zaila osatu zuten, eta 5.472 metroko desnibel metatua gainditu.

laz bezala, Kilian Jornet kataluniarrek irabazi zuen proba gizonezkoetan (3:57:39), eta emakumezkoetan, Oihana Kortazar (4:42:48) elgetarra nagusitu zen.



### Sailkapena:

91. Manolo Ramos .....	5:05:43
119. Ander Barrenetxea .....	5:12:51
124. Jon Revert .....	5:17:33
131. Maite Maiora .....	5:17:33
138. Xabier Bergaretxe .....	5:24:27
144. David Conde .....	5:27:22
297. Asier Arrieta .....	6:38:18

## Elgoibarrek 2-1 galdu du Azkoitiren kontra Herriarteko Pilota Txapelketan

Azkoitiak lehen kolpea jo du Herriarteko Pilota Txapelketan. Izan ere, final laurdenetako lehen kanporaketako hiru partidetatik bi irabazi zizkion Elgoibarri joan zen astean, Ikastolako frontoian. Lagunak taldeko pilotariak nagusien mailako partida irabazi zuten bakarrik, Arribillagak eta Txurrukak 22-16ko emaitzarekin hartu zituzten-eta mendean pilotari azkoitiarrak. Kadete eta jubeniletan, baina, 22-11 izan zen emaitza, azkoitiarren alde.

Itzulerako partidak gaur gauean jokatuko dituzte Azkoitian, Gurea pilotalekuan, 22:00etatik aurrera, eta elgoibartarrek bi partida irabazi beharko dituzte gutxienez, eta tantotan aldea ateratzea komeni zaie, finalerdietarako sailkatzeko.

Orain arteko kanporaketetan Soraluze eta Andoian kanporatu ditu Elgoibarrek. Azkoiti kanporatzea balentria handia litzateke.

## 120 gaztek hartu zuten parte Igeriketa Egunean



Elgoibarko Igeriketa taldeak antolatuta, Igeriketa Eguna ospatu zuten joan zen zapatuan Olaizaga kiroldegian, eta 6tik 14 urtera bitarteko 120 gaztetxok hartu zuten parte. Goizean goiz hasi zituzten igeriketa probak, eta eguerdirako bukatu zituzten egin beharrekoak. Egun alai pasatu zuten gutziek jai giroan.



ESKERTZA

## MANUELA ANSOLA AYERDI

2011ko ekainaren 1ean hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## Haundik Hirugarren mailari eutsiko dio, eta Erregionaleko taldea mailaz igoko da

Fernando Loiolak Haundiko entrenatzaile izateari lagako dio

**H**aundik hirugarren mailan jarraituko du datorren denboraldian, Amorebietak Bigarren B mailara igotzea lortu duelako. Horixe zen Haundik mailari eusteko aukera bakarra; hau da, igoera fasea jokatzeke sailkatu ziren lau taldeetako batek (Amorebieta, Laudio, Sestao eta Durango) igoera lortzea. Asteburuan jokatu du Amorebietak Menorcan, eta Bigarren B mailarako txartela eskuratu du.

Fernando Loiola Haundiko entrenatzailea Menorcan gertatzen zenari begira egon da asteburuan, Haundiko jokalaria, zuzendaritzako kide eta zale guztiak moduan, eta aitortu du Amorebietaren garaipenarekin zama handia kendu duela gainetik. Denboraldiak izan duen amaierarekin "pozik" agertu den arren, datorren denboraldian ez duela Haundi entrenatuko aurreratu du. Klubean jarraituko du koordinatzaile lanean, eta dagoeneko entrenatzaile berriaren bila hasi direla jakinarazi du.

### Erregionalak denboraldi bikaina

Erregionaleko mutilek denboraldi bikaina egin dute, eta datorren urtean Ohorezko Regional mailan jokatuko dute. Haundik mailari eustea ezinbestekoa zen Erregionala igotzeko. Inoiz egon den mailarik gorenean jardungo du datorren denboraldian, beraz, CD Elgoibarren bigarren taldeak.



Haundi



Erregionala

## Hiru elgoibartar Kantabriako Los 10.000 del soplao bizikleta proban



Maiatzaren 21ean jokatu zen Kantabriako Los 10.000 del soplao bizikleta proba, eta Elgoibarko hiru txirindularik hartu zuten parte. Gotzon Arrietak 10 ordu, 35 minutu eta 53 segundo behar izan zituen 167 kilometroko ibilbidea amaitzeko, eta sailkapen nagusiko 835. postuan iritsi zen. Iker Panizok eta Raul Martinek, bestalde, 14 ordu, 3 minutu eta 58 segundoko denbora egin zuten, eta sailkapeneko 2.561 eta 2562. postuetan iritsi ziren helmugara. Edu Uribek, bestalde, korrikako proban parte hartu zuen, eta 23 ordu eta erdian amaitu zuen 125 kilometroko ultratrail gogorra.

### Tenis jaialdia eta ate irekiak, asteburuan

Eskola Kirola egitasmoaren barruan, tenis jaialdia antolatu dute biharko. Olaizaga kiroldegian egingo dituzte jolasak, 10:00etatik 13:30era biartean. 6 urtetik gorako umeek hartu dezakete parte, eta antolatzaileek esandakoaren arabera, ez da beharrezkoa izango raketa eramatea, material guztia bertan emango diete-eta. Domekan, bestalde, ate irekien eguna egingo dute. 10:30etik aurrera tenis eta padel jolasak egingo dituzte Mintxetan, eta muskulazio gela irekita egongo da bazkideentzako. Kiroldegian, igerilekuak herritar guztientzat egongo dira erabilgarri.



# Alkortak igoera faseko azken partida jokatu du domekan

Beristainek Gipuzkoako kopa txapelketa irabazi du



Beristain taldea argazkian Gipuzkoako Kopa irabazi ostean.

**B**igarren Nazional mailara igotzeko azken partida jokatu du domekan Sanloko senior mutilen Alkorta taldeak. Joan zen astean Zarauzko taldeari 28-21 irabazi ostean, Elgoibarko taldea sailkapen nagusiko lehen postuan dago, beraz, bere esku dauka mailaz igotzea. Egia taldea da bigarren, 12 punturekin, eta Trapaga hirugarren, 11 punturekin. Azken partida hori Trapagaranen bertan jokatu dute elgoibartarrek. 12:15ean hasiko da partida, eta Sanlok autobusa jarriko du, zaleak animoak ematera joan daitezten. Interesatuak 600 901 675 telefonora deitu dezakete.

## Beristain Kopako txapeldun

Beristain jubenil mutilek Gipuzkoako Kopa txapelketa irabazi zuten, Legazpiko taldearen kontra 19-21ko emaitzarekin. Era berean, Grupo Eibar jubenil nesken taldeak ere irabazi du txapelketa bere mailan.

## Elgoibartik Lekeitiorako mendi bizikletaz

Morkaiko mendizale elkarteak mendi bizikleta irteera antolatu du ekainaren 11rako, Kirol Patronatuaren laguntzaz. Elgoibartik Lekeitiora joango dira, eta bi ibilbide egongo dira aukeratzeko. Ibilbide erraza aukeratzeko dutenak autobusez joango dira Munitibarreraino (bizikletak kamioian). 22 kilometroko ibilbidea izango da, edonork egiteko modukoa. Ibilbide luzea, bestalde, 40 kilometrokoa izango da. Nahi duenak Elgoibarko BTT zentroan bizikletak alokatzeko aukera izango du. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, Lekeition dutxa hartzeko aukera egongo da. Morkaikoko bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, 15 euro. Izena emateko, astelehen eta ostegunetan, 19:00etatik 20:30etara, Morkaikoren lokalean edo [morkaiko@morkaiko.net](mailto:morkaiko@morkaiko.net) helbide elektronikoa.

## EMAITZAK

### ESKU PILOTA

Herriarteko Txapelketa

Elgoibar 11 – Azkoitia 22 (Kad.)

Elgoibar 11 – Azkoitia 22 (Jub.)

Elgoibar 22 – Azkoitia 16 (Nag.)

Udaberri txapelketa

Lagunak 22 – Intxurre 21 (Nag.)

### ESKUBALOA

Tecnifuelle Elg. 17 – Aiala 25 (Sen. nes.)

Legazpi 19 – Beristain Elg. 21 (Jub. mut.)

Usurbil 25 – Grupo Eibar Elg. 29 (Jub. nes.)

IMH Elg.9 – Bera Bera 12 (Kad. nes.)

Aiala 14 – IMH Elg. 10 (Kad. nes.)

## AGENDA

### ESKUBALOA (Kiroldegian)

Domeka, 5

11:00 Elgoibar – Aloña Mendi (Aleb.)

### ESKU PILOTA

Domeka, 5

11:30 Lagunak – Beloki (Nag.)

## Debarrena BTT martxan izena emateko epea zabalik dago

Ekainaren 26an egingo dute Debarrena BTT martxa, eta nahi duenak izena emateko aukera dauka dagoeneko. Interesatuak [www.debarrenaturismo.com](http://www.debarrenaturismo.com) webgunean eman dezakete izena ekainaren 21a baino lehen. Partaideek bi ibilbide izango dituzte aukeratzeko; bata 25 kilometrokoa, eta, bestea, 45 kilometrokoa, baina antolatzaileek aurreratu dutenez, biak zailtasun maila handikoak izango dira. Probaren ostean Mintxetan bazkaldu nahi duenak 10 euro ordaindu beharko ditu. Partehartzaileek, bestalde, igerilekuetarako hiru sarrera jasoko dituzte.

## Neskentzako pala txapelketa antolatu dute

10Bai pilota taldekoek neskentzako pala txapelketa antolatzeko asmoa daukate, eta horretarako txapelketan parte hartuko duen jendea behar dute. Neskei egiten diete deia. Interesatuak ondorengo telefonora deitu dezakete: 639 572 532.

## Jendetza handia batu zen zapatuan Plaza Handian, Debabarreneko txistularien alardean

226 lagunek hartu zuten parte ekitaldian

**D**ebabarreneko txistularien alardeak 200dk gora lagun batu zituen zapatuan, Plaza Handian jarri zuten eszenatokian. Txistuak bizi duen bokazio faltaren aurrean, euskal instrumentu tradizionala aldarrikatu nahi izan zuen Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolak ekitaldi honekin. Musika eskolak urtero prestatzen du musikarekin zerikusia duen ekitaldiren bat, eta aurreko protagonismoa txistuari ematea erabaki zuten. “Beheraka doan instrumentua da txistua, gero eta jende gutxiago hurbiltzen baita instrumentu hori ikastera. Alardearekin ezagutarazi eta txistuaren irudia indartu nahi izan dugu”, azaldu du Joseba Garmendia musika eskolako irakasleak.



Deba, Eibar, Mutriku, Ermua eta Elgoibarko txistulariez gain, Soroluzeko musika eskolako abesbatzako eta Ezoziko Ama abesbatzako kideak ere etorri ziren Elgoibarrera, Debabarreneko txistularien alardean parte hartzera. Elgoibartarren artean, Parrokiako abesbatzak, Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako abesbatzak eta dantzariak, Haritz Euskal Dantzari Taldeak eta metal boskoteak parte hartu zuten. Joseba Garmendia izan zen zuzendaria, eta “pozik” agertu zen herritarrek emandako erantzunarekin. Eguraldi eguzkitsua lagun, ikuslez beteta egon zen plaza.

### Aitor Asenjo hirugarren, Gipuzkoako Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketan



Asteburu honetan jokatu dituzte Gipuzkoako Aurreku eta Soinu Zahar txapelketako finalak, mutilen kategorian. Elgoibartik hiru dantzarik hartu dute parte, eta 11-15 urtekoen artean Aitor Asenjo hirugarren egin du. 7 eta 11 urtekoen artean Joseba Astigarragak seigarren lekuan amaitu zuen, eta Julen Guillo zazpigarren postuan sailkatu zen. Elgoibarko dantzariak ondo dantzatu zutela azaldu du Jon Lizarralde dantza irakasleak, baina epaimahaiaren erabakiarekin “desilusionatuta” geratu zirela gaineratu du.

### Emozioak askatzeko teknikei buruzko hitzaldia eta ikastaroa

Iñaki Figueiredo elgoibartarrak emozioak askatzeko teknikei buruzko hitzaldia eskainiko du gaur arratsaldean, Kultur Etxean. Antsietatea, estresa, depresioa, beldurra edota kulpak askatzeko teknikei buruz hitz egingo du, besteak beste. Hitzaldia 19:30ean hasiko da.

Era berean, gai berari lotutako ikastaroa eskainiko dute ekainaren 11n. Emozioak askatzeak osasuna hobetzen lagun du dezake, eta hori tapping teknikaren bidez nola egin daitekeen erakutsiko dute. Tapping teknika kolpe txikien teknika da.

Ikastaroa egun osokoa izango da, eta 10:00etatik 20:00etara iraungo du. Sallorenteko Upaigoiti baserrian izango da, eta interesatuek 100 euro ordaindu beharko dituzte. Izena emateko, ondorengo telefonoetara deitu daiteke: 637 907 243 / 943 741 378.



# Jon & Sugramas taldeak kontzertua emango du gaur Kultur Etxean

Dukes talde alemaniarra ere egongo da ekitaldian



**G**aur gauean rock kontzertua egongo da Kultur Etxeko sotoan, eta bertan, Jon & Sugramas talde elgoibartarrak eta Dukes alemaniarrek hartuko dute parte. Ari-ma Beltzako abeslari eta Uek taldeko bateriajole izandako Jon Gurrutxagaren proiektu berria da Jon & Sugramas. Joan zen ekainean atera zuten diskoa Gaztelupeko Hotsak-ekin, eta neguan emanaldi elektrikoak nahiz akustikoak tartekatzen hasi ziren. Ingelesez eta euskaraz abestutako rocka egiten dute, eta bluesaren eragina ere nabari da euren abestietan, baina batez ere, 70eko hamarkadako rock taldeen eragina dauka taldeak.

Dukes, bestalde, Berlingo talde esanguratsua da. Alemaniako hiriburuan aski eza-guna den banda honek hard rocka du abiapuntutzat, baina gaur egungo beste hainbat estilorekin indartzen ditu kantak. Laukote alemaniarrek estreinakoz bisitatuko du Euskal Herria. Kontzertua 22:00etan hasiko da.

## ‘Eurodancing 2011’ dantza jaialdia antolatu dute datorren barixakurako



Biraka dantza taldeak kurtso amaierako Eurodancing 2011 jaialdia antolatu du datorren barixakurako (ekainak 10). Europako lehiaketa hipotetiko batean oinarritutako jaialdia izango da, eta partaideek lehiaketa hori irabazteko ahalegina egingo dute, Parisko final nagusian parte hartzeko. Hainbat musika estilo landuko dituzte, eta koreografia klasikoak zein garaikideak ikusteko aukera izango dute Herriko Antzokira gerturatzen direnek. Bi emanaldi egingo dituzte, lehenengoa 18:30ean, eta bigarrena, 20:00etan.

## Liburu Gaztea saria jaso du Jasone Osororen ‘Ezekiel’ liburuak

Jasone Osoro kazetari eta idazle elgoibartarraren *Ezekiel* liburuak irabazi du Liburu Gaztea saria, DBH2. mailan. Galtzagorri Elkartek Gipuzkoako Foru Aldundiari esker antolatzen du ekimen hau, DBHko gazteen irakurtzeko zaletasuna sustatzeko eta baita euskarazko gazte literatura zabaltzeko ere. Aurten 30 ikastetxek parte hartu dute, eta 3.451 ikaslek eman dute botoa.



## Maddi Mendibil Eskolarteko Bertso txapelketako finalean

DBH2. mailako Maddi Mendibilek Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolaritza txapelketako finala jokatuko du, bat-bateko alorrean. Gaur izango da finala, Azpeitiko Soreazu aretoan, 16:00etan. Bertso pape- ren atalean, bestalde, aipamen be- rezia jaso du Ikastolako ikasle ho- nek.



## LANA

### ESKAERA

- Emakumeak garbiketa lanak edo pertsona nagusiak zainduko lituzke. ☎ **663 115 241**
- Neska lan bila dabil, nagusiak zaintzen esperientzia handia. ☎ **636 581 194**
- Emakumea pertsona helduak zaintzeko prest. Esperientzia eta erreferentzia onak dauzkat. ☎ **699 813 826**
- Emakumea gauzez pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **689 273 664**
- Emakumea lanerako prest. Pertsona nagusiak zainduko nituzke edo sukaldari laguntzaile bezala jardungo nuke. (Orduka edo asteburuetan). ☎ **689 273 664**
- Edozein motako garraio lanak egiteko prest nago. Furgoneta handia daukat. ☎ **628 512 278**
- Emakumea pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. ☎ **648 603 029**
- Emakumea lan bila. Nagusiak nahiz umeak zainduko nituzke. ☎ **685 212 060**
- Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest. ☎ **650 756 601**
- Emakumea lan bila. Sukalde laguntzaile edota zerbitzari lanak egiteko prest. Nagusiak nahiz umeak zainduko nituzke. ☎ **671 343 612 / 943 531 931**

### ESKAINNTZA

- Sukaldaria behar da Eibarren lan egiteko, esperientziaduna. ☎ **620 674 529**

- Komertzial euskalduna behar da. Auto propioarekin. CV bidali nereabat@euskalnet.net-era
- Tabernako sukalde edota barran lan egiteko pertsona euskalduna behar da. ☎ **666 559 513**
- Etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da, goiz eta arratsaldean lan egiteko. Autoa izatea derrigorrezkoa da. ☎ **610 207 524 / 651 703 406**

## ETXEBIZITZAK

### ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Etxea salgai, prezio interesgarrian. ☎ **688 658 183**
- Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **686 420 642**
- Emakumeak pisua hartuko luke Elgoibarren alokairuan. ☎ **698 390 818**
- Neska bi logelako pisua alokatuko luke Elgoibarren. ☎ **626 641 318**
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **698 390 818**
- Neska batek etxea hartuko luke Elgoibarren alokairuan. ☎ **697 735 046**
- Etxebizitza alokagai Pedro Muguruza kalean. Bi logela, guztiz erreformatua eta altzariz hornitua. 590 euro hilean, kontratuarekin. (Juan) ☎ **659 304 159**
- Benidormeko erdigunean apartamentua alokairuan. Aire egokitua, eroso eta auzokideentako igerilekuarekin. ☎ **943 740 628**
- Etxebizitza alokagai Pedro Muguruza kalean ☎ **659 304 159**
- Bikote batek etxea hartuko luke alokairuan. ☎ **671 750 872**

## GARAJEAK

- Garaje marraduna alokagai Leku Ederren, laugarren solairuan (55€) ☎ **660 042 159**

## LOKALAK

- Lokala salgai. Eguzkitsua, 200 m<sup>2</sup> hiru solairutan banaturik. Ate txiki eta handia. Berri-berria. Merke, 100.000 €, Pedro Muguruza, San Pedro aldean. ☎ **610 458 552**

## BESTELAKOAK

- Elena izena daraman urrezko eskumuturrekoa galdu dut. Oso estimatua nuen, mesedez aurkitu duenari udaltzaigoetan uzteko eskatzen diot.
- Alemanierazko klaseak ematen ditut. Adin guztientzako ematen dira klaseak, haur, gazte eta helduentzako. ☎ **670 793 312**
- SEAT marka duen auto baten giltza aurkitu dut Barsarten. ☎ **695 721 638 (Lorea)**

## KINTOAK

- 1956an jaiotakoak kinto bazkaria egingo dute ekainaren 11n Harzubi jatetxean. Interesatuek 60€ sartu behar dituzte Kutxako kontu zenbaki honetan: 2101 0036 69 0127817013

UDAKO IKASTAROAK 2011





**UDAKO IKASTAROAK 2011**  
**MATRIKULA ZABALIK**  
[www.udaleuskaltegiak.net](http://www.udaleuskaltegiak.net)

## Matrikula zabalik

**2011ko UDAKO EUSKARA IKASTAROAK**

2. DEIA/DIA PRESTATZEKO IKASTAROA  
3. MAILA eta EGA

Uztaila - Iraila

Ekainaren 27tik uztailaren 22ra  
(3 ardu egunear)

Irailaren 2tik 16ra  
(2 ardu egunear)

**PREZIOA**  
115 euro  
Ikasle eta lagabeteentzako prezioa: 73 euro

Bekatzeko sistema

**MATRIKUALDIA**  
Ekainaren 24ra arte

**5 arrazoi on**  
udal euskaltegien izena emateko

1. Zure seme-alabei etxeko lanetan laguntzea emaztuko dizu.
2. Komunitate bideak ulertzen lagunduko dizu.
3. Lagun berriak egiteko dituzu.
4. Lana aurkitzen lagunduko dizu.
5. Euskaraz irakatsitzen eta irakazten trebatuko zara.

**Ahantailak**

- Titulu ofizialak.
- 30 urteko esperientzia.
- Ordu-tegi eta ermita malguak.
- Kartxoak lizentzatzeko bekak.
- Eskitza osagarriak.

**Euskara ikasteko bide zuzena**



**UE** [www.udaleuskaltegiak.net](http://www.udaleuskaltegiak.net)

**UDAKO IKASTAROAK 2011**  
**MATRIKULA ZABALIK**

**DEBATE UDAL EUSKALTEGIEN**  
**MANKOMUNITATEA**

Nafarroa Esperantzeta 2  
20870 **ELGOIBAR** • Tel./Faxa: 943 74 27 31  
elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net

20





• Zorionak, **Garazil** Ondo pasa igandean. Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **sorgintxo!** Bihar urte bat! Muxu bat familiakoen eta bereziki, Paularen partez.



• Zorionak, **Oier!** Primeran ospatu genuen zure 11. urtebetetzea. Patxo handi bat denon partez, txapeldun!



• Zorionak, **Maddi**, igandean 4 urte egingo dituzulako. Unax, Ane eta familiakoen partez.



• Zorionak etxeko **printsesari** 2 urte egin dituelako. Muxu handi bat etxekoen partez.



• Zorionak, **Nahia**, maiatzaren 25ean 5 urte egin zenituelako. Muxu asko etxekoen, eta Iratiren partez.



• Zorionak, **Alex**, asteazkenean 6 urte egingo dituzulako. Ondo pasa, etxekoen eta, Mikelen partez.



• Zorionak, **Gorka** igandean 11 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat gurasoen eta anaiaren partez.



• Zorionak, **Haizea eta Maddi** ekainaren 4an urtebete egingo duzuelako. Familiakoen partez.



• Zorionak gure etxeko **sorgintxoel**, 5 eta 9 urte betetzen dituztelako. Muxu asko, familiako guztien partez.




• Zorionak **mendizale bikoteari**, ekainaren 1ean 9 urte bete zituztelako. Muxu bana, etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Sara**, ekainaren 2an 6 urte egin zenituelako. Familiakoen eta bereziki, Roke-ren partez.



• Zorionak, **bikotel!** Gaur ederto pasatuko du! Muxu asko, koadrilakoen partez.



• Zorionak, **Lorea eta Josu**, gaur 30 eta 2 urte egin dituzuelako. Familiakoen partez muxu handi bat.



• Zorionak, **aittita Manuel eta Maren!** Muxu handi bana etxekoen partez.



• Zorionak, **poxpolinak**, maiatzaren 30ean (June) eta ekainaren 5ean (Arhane) 3 urte egin dituzuelako. Patxoak.

**Erretratu bakarrek agurra: 3 €. Argazki bikoitza: 5 €. Hirukoitza: 7 €. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 e€.** Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**neko bulegora 12:00ak baino lehen, [edobarren@elgoibarkoizarra.com](mailto:edobarren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.

## OSPAKIZUNAK TXAPELDUNAK



Zorionak Bankoa taldekoei, Urdanetan bigarren postua lortu zutelako! Jarraitu horrela, txapeldunak!!!

## OSPAKIZUNAK AFARIA



Eskerrik asko Mendaroko batuka taldekoei. Zelako ondo pasatu genuen!!! Muxu handi bana.

### 3 barixakua

#### Aisialdia

17:30 Kiribilka  
Plaza Handian.

#### Bilera-jaia

19:30 HARRO2ren urteurrena  
Txaranga-poteoa eta bilera.  
Plaza Handian bilduko dira.

#### Musika

19:30 Kontzertua  
Musika Eskolako dantza eta talde finkoen saioa, Herriko Antzokian.

#### Hitzaldia

19:30 Emoziok askatzeko teknikak  
Iñaki Figueiredok eskainiko du, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

#### Musika

22:00 Rock kontzertua  
Jon&Sugramas eta Dukes taldeen kontzertua, Kultur Etxeko sotoan.

### 4 zapatua

#### Emaleen eguna

10:30 Mahai informatiboa  
Organo emaleen informazio mahaiak Plaza Handian.

#### Jaialdia

9:00 Ikastolaren Eguna  
Ikastolan.

#### Kirola

10:30 Tenis jaialdia  
Olaizaga kiroldegian.

### 5 domeka

#### Kontzentrazioa

9:00 Motoen elkarretaratzea  
Madalako parkean. Ondoren herria zeharkatuko dute, eta eguerdian bazkaria egingo dute.

#### ibilaldia

9:30 Mendi irteera  
Zubibaik antolatuta, Altzola inguruan.

#### Kirola

10:00 'Kirolari ateak ireki'  
Mintxetan eta kiroldegian.

### 7 martitzena

#### Bilera

19:30 Landatzen egitasmoa  
TaZebaEz enpresakoek Landatzen programaren berri emango dute. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

#### OKINDEGIA

3 domeka IBARRENEA

#### FARMAZIAK (24 orduz)

- 3 Garitaonandia-Bidasolo
- 4 Etxeberria (Errosario)
- 5 Etxeberria (Errosario)
- 6 Fernandez
- 7 Yudegoa
- 8 Zabaleta
- 9 Etxeberria (Errosario)
- 10 Ibañez

#### Fernandez

Herriko enparantza 4,  
Garagartza (Mendaro)  
Tel: 943 756 142

#### Ibañez- Rekalde, 1 (Soraluze)

Tel: 943 751 638

#### Zabaleta- Kalebarren, 9

(Soraluze)  
Tel: 943 751 384



Eskerrik asko  
Ludotekako

**2. Aste Nagusian** parte hartu duzuen guztioi!  
Zoragarri pasatu dugu!!

**Gaztelekuko futbol 7 txapelketa** Mintxetan, ekainaren 25ean.

Zortziko taldeetan!  
Izena eman, ekainaren 12a baino lehen.



Oharra: Ekainean ez da zinerik egongo Herriko Antzokian. Uztailan hasiko da aire libreko zinema zikloa, Plaza Handian.

#### II. URTEURRENA

### TXOMIN ETXEBERRIA AGOTE

"Ballibar"

2009ko ekainaren 5ean hil zen, 86 urte zituela. Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, domekan, ekainak 5, goizeko 11:30ean Elgoibarko Bartolome deunaren parrokan. Joango zaretenoi eskerrak alde z aurretik.



#### ESKERTZA

### JUANA ZUBIZARRETA ASTIGARRAGA

2011ko maiatzaren 31n hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





**Belaustegi  
Baserria**



**JATETXEA**

San Migel Gaina z/g  
Tel. 943 74 31 02  
[www.belaustegi.com](http://www.belaustegi.com)



12. urteurrena



**Dastatzeko menua ekainaren 10etik 15era.  
Edaria eta kafea 37,50 euro (+ bez)**

Portxe-jardineko jaiman bazkaldu edo afaltzeko aukera.  
Ostiral eta larunbatetan, gaueko 22:00etatik aurrera kopak jardinean.





# OSASUN GIDA



## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

### *Kemen Belardenda.*

#### *Naturopata, Iridiologia eta Homeopata.*

(Pisu kontrola, "Dieta erraza", Bach lo-reak, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak, masajeak, doitze neurologikoa, astrologia medikuntza eta hipnosia). Familia konstelazio taillerak. Naturopata, makrobiotika eta P.N.L. kontsultak, ordua aurrez hartuta. San Bartolome, 29  
Tel: 943 744 031  
Egunero: 9:00-13:00  
16:30-20:00

### *Sanatana Dharma Yoga Elkarte*

Anginei aurre egiteko masajea. Urasandi, 9

Tel: 943 748 593 (ldoia)  
685 722 131

Astearte eta ostegunetan:  
10-11:30 / 18-19:30 / 20-21:30

### *Mendaro:*

Astelehen eta asteazkenetan:  
15:00-16:30

## MASAJISTAK

### *Victoria Iraegi*

(Esku-terapiak: kiropraxia, dratnatzaille linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea).

San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea)

Tel.: 943 740 770  
Astelehenetik Ostiralera:  
8:00 / 14:00

## PODOLOGOAK

### *Oinberri*

Errosario kalea, 25

Tel: 943 741 795  
Astelehenetik ostiralera:  
9:00-13:30 / 15:00-19:30

### *Iñigo Arrillaga Yudego*

- Hanken afekzioen terapia.  
- Neurriera egindako plantilak.  
- Hanka diabetikoaren zainketa.  
- Ordenagailuaren bidezko hankaren azterketa.  
San Frantzisko, 20 behea  
Tel: 943 741 645  
Ordutegia:  
9:30-13:30 / 15:30-19:30

## FISIOTERAPIA

### *Ainhua Fisioterapia*

Jausoro, 6 behea.  
Tel.: 943 531 953  
669 565 745  
Goiz eta arratsaldez.

### *C.R.F. erreabilitazio zentroa*

(Partikularrei eta seguruen bidezko tratamenduak). Fisioterapia, kirol-fisioterapia, mesoterapia, elektroakupuntura, laser terapia, kinesio taping eta osteopatia.

San Inazio, 2  
Tel.: 943 743 374  
Astelehenetik ostiralera:  
8:00 - 13:00 / 15:00- 19:00

## OPTIKAK

### *Ikus optiko-optometrista*

San Bartolome, 10  
Tel: 943 743 734  
Egunero:  
9:30-13:00 / 16:30-20:00

### *Uzuri*

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)  
San Frantzisko, 21  
Tel: 943 740 359  
Egunero:  
9:30-13:00 / 16:30-20:00

## HORTZ KLINIKAK

### *Irale*

Errosario Kalea, 7 behea  
Tel: 943 743 679  
Zeharkalea, 8 behea (Ermua)  
Tel: 943 177 134  
[irale@irale.com](mailto:irale@irale.com)  
[www.irale.com](http://www.irale.com)

### *Leku eder*

Elena Herrero Lobo.  
Aita Agirre enparantza,  
5 behea.  
Tel: 943 530 053  
[lekueder@informed.es](mailto:lekueder@informed.es)

### *Beitia Arriola*

- Odontologia orokorra eta ortodontzia  
- Hurren Hortzagin programa  
- Panoramikak eta telerradiografiak  
Trenbide kalea 21, behea  
Tel: 943 531 869

## ORTOPEDIAK

### *Itziar Sarasketa*

San Frantzisko, 12  
Tel: 943 74 35 62  
Egunero:  
9:30-13:00 / 17:00-20:00

